

Audioaren erreferentzia: Bagoaz A2E23i *Akabo plana*

Maila: A2

Helburua: Hartutako konpromisoa bete ezin dugunean, azalpenak ematea

Funtzioak: Barkamena eskatzea, azalpenak ematea.

Azken jarduera: Hartutako konpromisoa bete ezin duguneko zenbait egoera antzeztu eta konponbidea eman.

Adierazpide linguistikoak:

- Ezintasuna eta barkamena adierazteko espresioak: ezin dut, ezin naiz joan, sentitzen dut
- Konponbidea eskaintzeko espresioak: beste batean egongo gara....
- Lexikoa:
 - plana, zapuztu, antzerkia, afaria, kirol-ikuskizuna
 - Esamoldeak: bertan behera gelditu

1. ENTZUN AURRETIK

Hartutako konpromiso bat bete ezin dugunean, hitzordu bat bertan behera uzten dugunean... horrelako egoeretan nola desenkusutzen garen, hori da atal honetako ekintza komunikatibo nagusia. Hasteko, 3 lagunek egindako azalpenak dituzte eta elkarrizketa-eredu bat; horiek oinarri hartuta, ikasleei talde txikitari jarrita halako kasuren bat kontatzeko eskatuko diegu eta gero talde osoaren aurrean komentatu ditzakegu kasu batzuk.

Atal hau bukatzeko, gero entzungo duten audioaren gaineko hipotesia egiteko eskatuko diegu ikasleei; audioa entzuten dutenean argituko dute puntu hori.



Erantzuna: c

2. ENTZUN BITARTEAN

Audioko mezua ondo ulertu duten erreparatzeko tartea. Hasieran bakarka eta gero bikoteka adostu behar dituzte erantzunak. Zuk baloratu zenbat aldiz entzun behar duten audioa, osorik edo zatika. Aukera anitzeko 5 galdera dituzte hemen; gogoratu aurreko ataleko galdera ere komentatzea.

Erantzunak: 1-b, 2-b, 3-a, 4-b, 5-c

3. ENTZUN ONDOREN

  3.1 Josuren eta Amaiaren arteko elkarrizketa-zati bat osatzeko eskatuko diegu. Bertan Josuk azalpenak ematen ditu zergatik ezin den joan hitzordura adierazteko; eta horixe da, hain zuzen ere, atal honetako ardatza.

Erantzunak: 1) Ezingo naiz.... 2) Bat-batean 3) Sentitzen dut, baina beste batean... 4) Ez, Josu, lasai. 5) Egongo dira aukera gehiago 6) ezin dela.....

AMAIA.— Bai, Josu, bazatoz?

JOSU.— Ez, horrexegatik deitu dizut, Amaia. Ezingo naiz joan antzerkia zurekin.

AMAIA.— Eta hori zergatik?

JOSU.— Bat-batean Lidek deitu dit. Sentitzen dut, benetan, baina beste batean joan beharko dugu.

AMAIA.— Ez, Josu, lasai. Sarrerak zureak dira eta leihatilan daukazazu.

JOSU.— Egongo dira aukera gehiago elkarrekin joateko.

JUNE.— Zer zuen babo horrek?


AMAIA.— Ustekabean Lide etorri dela Oslotik eta ezin dela antzerkia joan nirekin.

“Jarri arreta hizkuntzan” holako egoeretan erabiltzen diren espresio gehiago ageri dira. Bertan, zenbait espresioz gain, komeni da arreta jartzea bi baliabidetan: ezin eta ‘eta’ kausala.

Ezin azaldu bi modutara erabili dezakegula: osorik jokatzen dugunean, azaldu trantsitibo/intrantsitiboa den erreparatzeko eta elementuen ordena; era laburrean, trantsitiboan erabili ohi dugu: *ezin dut*.

“Eta” kausazko partikula egokia da azalpenak emateko baliabide bezala; erreparatu ahoskatzerakoan, aurreko hitzari itsatsita balego bezala esan ohi dugula: *Gaixo nago-(e)ta*

3.3an, azken jarduera daukate. Aurreko ariketetako ereduak ikusita, ikasleei antzeko egoera batean sartuta antzeztu dezatela eskatuko diegu, era horretako espresioak erabiliz. Guk hiru egitea proposatzen dugu, eta hiru egoera dituztenez, egoera bakoitzean rola aldatzen joateko euren artean; batek azalpenak eman, besteak entzun eta elkarrizketari eutsi eta hirugarrenak irtenbidea proposatu.

 **Oharra:** Nahi izatera, eta ariketa osagarri gisa, beste ariketa hau ere egin daiteke, ludikoagoa dena: Egoera gehiago eskaini (esaterako, beheko hiru horiek). Ikasle bakoitzak (hirunaka jarraitzen dute) bat aukeratu eta pentsatu dezala arrazoia. Besteek asmatu egin beharko dute arrazoi hori.

1. Datorren asteburuan kuadrillako afaria daukazue, baina ez joatea erabaki duzu.	2. Lagun batekin korrika egitera joaten zara ostegunero, baina aste honetan ez zara joango.	3. Familiako urteroko bazkaria daukazue igandean. Ez daukazu joateko gogorik.
---	---	---

- **Datorren igandean futbolera joan behar nuen lagunekin baina ez naiz joango?**
- **Zergatik? Futbola gustatzen ez zaizulako?**
- **Ez, ez da horregatik.**
- **Beste plan bat daukazulako?**

o **Bai, baina zer plan?**

✖ Bukatzeko, talde osoaren aurrean aurkeztu dezakete emandako azalpenak eta irtenbideak, ea antzekoak izan diren hirukoteetan.

AUDIOAREN TRANSKRIPZIOA

JUNE. – Gaur ez daukazu lanerako gogo handirik, ezta, Amaia?

AMAIA. – Egun osoa lanean pasa dut eta! Ordu-erdi barru Josu etorriko da eta dutxa bat hartu nahi dut aurretik.

JUNE. – Nora zoazte ba?

AMAIA. – Bere lagun bat aktorea da antzerki-talde batean eta bi sarrera oparitu dizkio gaurko estreinaldirako.

JUNE. – Ederra plana! Ni oso gutxitan joaten naiz antzerkira.

Halako batean, Amaia-aren telefonoak joko du.

AMAIA. – Bai, Josu, bazatoz?

JOSU. – Ez, horrexegatik deitu dizut, Amaia. Ezingo naiz antzerkia ikustera joan zurekin.

AMAIA. – Eta hori zergatik?

JOSU. – Bat-batean Lidek deitu dit. Oslotik etorri dela eta bere bila joateko aireportura.

AMAIA. – A, bai? Zer ondo! Emazkiozu goraintziak nire partez.

JOSU. – Emango dizkiot, bai. Sentitzen dut, benetan, baina beste batean joan beharko dugu.

AMAIA. – Ez, Josu, zoazte zuek, lasai. Sarrerak zureak dira eta leihatilan dauzkazu.

JOSU. – Bidaia luze horren ondoren, seguru nago Lidek ez duela antzerkia ikustera joan nahiko. Gainera, horrelako gauzak ez zaizkio batere gustatzen.

AMAIA. – Ez dakit, ba, zer egin.

JOSU. – Zoaz, neska, oso ondo pasatuko duzu. Eta egongo dira aukera gehiago elkarrekin joateko. Bueno, orain eten egin behar dut, bestela Lide haserretu egingo zait, aireportuan, zain.

AMAIA. – Ados. Ondo ibili, agur!

JOSU. – Agur, bai!

JUNE. – (lagunaren aldarateaz jabetuta) Zer zuen babo horrek?

AMAIA. – Ustekabean Lide etorri dela Oslotik eta ezin dela antzerkia ikustera joan nirekin.

JUNE. – Ba zoaz dutxara azkar, ni joango naiz-eta zurekin.

AMAIA. – Benetan? Zoragarri pasatuko dugu.

JUNE. – Baina, galdera bat, Amaia.

AMAIA. – Bai, zer?

JUNE. – Badakizu benetan zer nahi duzun Josurekin?

AMAIA. – Ez... Eta banoa korrika; bestela, ez gara antzokira zortzietarako iritsiko.

JUNE. – Aiaiai...